



## Hau da aste honetako euskararen pilula!

“a los autos de su razón” euskaraz, nola?

Zuzena: “dagokien autoei”

Oso ohikoa dugu epaitegietako idazkietan erdarazko esapide hau: “*El anterior escrito presentado por X únase a los autos de su razón*”. “De su razón” horren esanahia idazkia auto jakin batzuei dagokiela baino ez da, eta, horregatik, esapidea euskaraz emateko orduan, “dagokien autoei” formula erabiltzen dugu.

Kontuan izan “dagokien” erabiltzen dugula, eta ez “dagozkion”, idazkia autoei dagokiela ulertzen baitugu, eta ez autoak idazkiari. Noski, idazki bat baino gehiago eransten denean, “dagozkien autoei” erabiliko dugu.

- El anterior escrito únase a los autos de su razón
- Erants bekie aurreko idazkia dagokien autoei
- Los anteriores escritos únanse a los autos de su razón
- Erants bekizkie aurreko idazkiak dagozkien autoei

Bestalde, kontuan hartu ez diogula jarraitzen erdarazko esaldiko hurrenkerari, baizik eta eransteke agindua ematen duen pasartea esaldiaren hasieran kokatzen dugula, horrela egokiago ematen baita informazioa:

- El escrito presentado por el procurador X en nombre y representación de Y, únase a los autos de su razón
- Erants bekie dagokien autoei X prokuradoreak Yren izenean eta ordezkartzan aurkeztutako idazkia